

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Lehiaketa bidez garbitzaile lanpostu bat betetzeko eratutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda eta epaimahai kalifikatzailearen eraketa

2022ko urriaren 19ko ALHAOn (119. zenbakian) argitara eman zen adierazitako prozesuan onartutakoen behin-behineko zerrenda. Erreklamazioak aurkezteko bost egun balioduneko epea igaro da eta ez da erreklamaziorik jaso. Hortaz, oinarri arautzaileei jarraituz, zerrenda hori behin betiko bihurtu da, ondoren zehazten den bezala:

Onartuak (1. abizena/2. abizena/lzena):

De la Torre Manteca, María Teresa.

Baztertuak: bat ere ez.

Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hileko epean, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Dena dela, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da.

Era berean, epaimahai kalifikatzaileko kideen izendapena, aurka egiteko arrazoiak eta epaimahaiaren kontrako errekurtsuak ALHAOn 119. zenbakian argitaratuta, eta epaimahaiburuak deialdia egin ondoren, epaimahaia eratzeko bilduko da, iragarki hau argitaratu eta berehala. Haren erabakiak iragarki taulan eta udalaren webgunean (www.lapuebladelabarca.eus) argitaratuko dira.

Lapuebla de Labarca, 2022ko urriaren 27a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ